

# **BIZKAITARRAI- BIZKAIERAZ\***

[www.euskerazaleak.biz](http://www.euskerazaleak.biz)  
[www.euskerazaintza.org](http://www.euskerazaintza.org)

335n. zenbakia


2008 zezeilla/otsaila



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura

LAGUNTZAILLE

# 1.- KROMAÑON EUSKALDUNA



Asi daigun idaz-lanen zerrenda barri bat. Edestia izango da, baiña beti aurrean argazki bat dauala eta beti euskaldunakaz zeozetan zer-ikusia daukana, naizta liburu oso erdeldun batetik artuak izan.

Gure aurretikoak, edestiaren aurrean bizi ziranak, ingurua izoztuta egoalako leizetan bizi ziran. Berbetan apur bat ba-ekien eta zalantza bagerik euskeraz berba egiten eben, baiña guk ez geuntsen ulertuko, lenengo milla-urteetan beintzat.

Olako leizak aurkitzeko iru tokitara batez be bergiratu bear dogu: Iparraldean Laskaux'era, Bizkaia'n Santimamiñe'ra eta sartaldean Altamira'ra.

Guk Altamira'ra begiratu dogu gaur.

Millaka urteetan bizi izan ziran gure aurretikoak olako leizetan, orain 30.000 urte asi eta orain 10.000-bat urtera arte. Arri-aro zarra edo "paleolitiko" deritxo giro orreri.

Euren janariak arraiña, eizakiak, eta basoko landaren frutu batzuk ziran, leizen sarreretan agertzen diran ondakin-moltzoak adierazten dabenez.

Baiña euren lanik arrigarriena leiza orreitan ikusi daitekezan margazkiak dira. Ederto margoztuta, margo arrigarriakaz, agertzen dira aldi aretako piztiak, iñoz gizakiak be bai, baiña oso gitxitan. Geien agertzen diran piztiak konkordun zezenak (bisonteak) eta zaldiak dira.

Gero giroa gozotu zanean, leizetatik urten eta etxeak egiten asi ziran, apurka-apurka auzoetan alkartu-arte. Geroago auzo orreitan sortuko dira ermitak.

Zertarako egiten ebezan margazki orreik? Dirudianez, uste eben etxean margoztuta eta zaurituta itzi dabean pizkia errezago eizatuko ebela. Orregaitik dagoz margazkiak leizen barru-barruetan, erakusteko ez diralako. Aztikeria edo majia zan ori, orduko erlejiñoa.

Ba-dagoz olako margazkiak erdi-ugarte onen sortaldean be, baiña irudiak ez dira ain gauzakoiak edo realistikak, estilizatuagoak dira, eta an gizakiak ugari agertzen dira eta, gaiñera sarritan, ibilten: eiza egiten, dantzan, arraintzan, basoetan frutuak batzen eta abar.

# 1.- GAZTELA'KO ISABEL ERREGIÑEA

## SARRERA

Cesar Vidal idazle onak liburu irakurgarri bat argitaratu dau “Cambiaron la historia” idazpuruagaz. 59 gizakiren bizitza laburrak dira eta guztiak, idazpuruan beintzat, mailla baten ipinten daz.

Gizaki onein barria irakurleai emotea ondo izango litzakela otuta, iru zerrendetan banandu dodaz gizaki oneik. Batzuk gizanditzat jo dodaz eta amar izan dira gutziz, beste batzuk gizaki ospetsutzat jo dodaz eta oneik izan dira zortzi. Orain beste zerrenda bat egiten dot eta onei onurakorrak deritxet. Oraingo azaldu daukadaz zerrenda onetan. Orrelan ba, iru zerrendetan  $10+8+14=32$ . Baiña 59'ra arte 27 geratzen dira sartu bagerik. Zergaitik? Batzuk oso ezagunak diralako, esaterako Moises, Jesus eta Pablo. Beste batzuk, neure ustez garrantzi aundikoak ez diralako, esaterako Kleopatra, Saladino, Alfonso X, Lukrezia Borgia. Beste batzuk margolariak diralako, Velazquez esaterako, edo ereslari edo musikuak diralako (edertia sartu ezker, beste asko dagoz), esaterako Bach, Mozart, beste batzuk euren bizitza ain garrantzizkoa ez dala uste izan dodalako, esaterako Jovellanos, Cook, Nelson, Indira Gandhi eta Ronald Reagan.

## 1.- ISABEL GAZTELA'KO ERREGIÑEA

Erregiña oneri buruz eritxiak eskatuko ba'genduz, ez gintzakez batera etorriko: Batzuk “santa'tzat artzera arte goratuko dabe eta beste batzuk endakeri-zale lez, judatarrak eta mauroak erbesteratu ebazalako. Baiña goazen bere bizitzara.

1474n. urtean jaio zan eta Gaztela'ko erregearen alabea zan. Ez eukan bide zabalik errege-aurkara igoteko. Ama zoroa izan eban eta jatorriz gax orrek jarraituko ete eban bildurra egoan, bere nebea, errege izatera eldu-bearrekoa IV Enrike, makala zan eta zikiña be bai. Errege izatera eldu zan baiña bilin-bolanka ibilli zan. Ortik etorri jakon Isabel'eri erregetzarako bidea. IV Enrike izan zan Bizkai'ko Jauna, baiña jauntza kendu egin bear izan jakon Isabel'eri emoteko.

Txikitatik zan otoitz-zalea eta maite eban Biblia, batez be Joan'en ebanjelioa. Ortik atera eban indarra, bere ama zoro ta gaisoari laguntzeko, bere nebeagaz eroapen aundia eukiteko... Lan neketsu orreitan Isabel sendotu egin zan.

Gaztetatik ardura aundiak artu bear izan ebazan. Bat, esaterako, bere senarra nor izango zan. Eskintza asko jatorkozan baiña kontuz jokatu eban eta Gaztelerako, España barria sortzeko eta Europa'rako onena izango zalakoan Aragoi'ko Fernando artu eban. Onek asko sufridu-azo eutson ezkontzan zintzoa ez zalako. Uri aundi batera joaten zan bakoitxean (Bilbao'ra be bai), andik legezkoa ez dan seme edo alaba bat agertzen zan, bastardo bat. Bear eban eroapena Isabel'ek!

Gazte-gaztetan ezkondu ziran, amabost urte-ingurukoak zirala. Euren alkartzera, elebarri edo nobela bat idazteko jazokizuna izan zan.

IV Enrike il zanean, leiñargi batzuk Beltraneja eritxon Juana bat nai eben erregiña, Enrike'ren alabea zalako, naizta ezkontzarik kanpoko, Beltran'en alabea zan. Erritarren arteko guda bat sortu jakon Isabel'eri, Frantzia eta Portugal aurka eukazala. Baiña irabazle urten eban Isabel'ek. Eta gastuak urritu ebazan eta ardurak ondo banatu...

1481n. urtean Granada'ko erregeak bakerako ziran artu-emonak apurtu ebazan eta Isabel'ek asi eban España eskuratzeko guda Granada'ren aurka eta irabazi eban. Baldintza onetan egin eban Isabel'ek bakea eurakaz eta euren etxe ederrak, Alhambra esaterako edo Mezquita, Isabel ez apurtzea lortu eban. Arabeak ez dabe ori egin inon be.

Era zakarragoan erbesteratuak izan ziran judatarrak, baiña orretan 1942n. urte aretan eleizgizonen eskariak izan ziran zakarrak.

Jakiña da zelako artu-emonak izan eban Isabel'ek Kristobal Colon'egaz, Amerikak aurkitzeko orduan.

Txalogarria da, batez be, Isabel'ek, ezkontzen bidez egin ebazan alegiñak Europa osoa batzeko.

Bera izan zan edestian lenengoa gudako Zaurituen Etxeak sortu ebazana, lenengoa umezurtzentzat eta alargunentzat sariak lortu ebazana, bera sendoa Eleizea biurtzeko alegiñak egiten, Cisneros Kardinala lagun ebala, bera emakumeen eziketarako lenengo lanak egin ebazana, berak gertatu eban Europa I Karlos'ek izan eban inperioa izan egian, eguzkia eskutatzen ikusten ez dauan inperioa.

Azkenengo urteak larriak izan ziran beretzat, Juana alaba zoroa ondoan eukala, baiña beti izan zan adoretua, naiz zaldi-gaiñean gudara joateko naiz etxeko nekeak igaroteko. Min biziak jota il zan eta mundu ezagun guztian egin jakon negar.

Aspaldion baragarrikeri batzuk esan dira bere aurka, esaterako inoz ez ebala arkontdarea aldatzen, endakeri-zalea zala, Fernando zala aundia eta bera ezereza, baiña Isabel oso jakituna zan (sei izkuntza ekizan, onein artean latiña), garbikuzian oso arduratsua zan eta bere serbitzailleai aste-barruan batzutan uguztea edo baiñatzea eskatzen eutsen, endakerizalea ez zala agertzeko, esan dagigun bere azkenengo laguntzaillea morisko bat zala eta bere lagun asko judatarrak zirala legea atera aurrean eta ostean judatar biurtuak.

Arazoak ikusten Fernando baiño askoz zurragoa ta zorrotzagoa zan eta oitura-bizitzan askoz garbiagoa.

Ekintza aundiak (erritarren guda, Granada'koa, Ameriketako arazoa, ezkontzen ikuspegia... guztiak ziran Isabel'ek ikusiak, ez Fernando'k. Berak Fernando bere bidera akartzea lortzen eban, baiña inoz agertu bagerik gizona bere menpean egoala, orregaitik esaten zan “Tanto monta, monta tanto Isabel como Fernando”.

## 8.- MAYFLOWER´EKO IBILTARIAK (USA´REN IRASLEAK)

William Bradford umezurtz geratu zan, baiña dirudun eta Aitita-amamak izan ebazan zaintzaille.

12 urtekoa zala bibliaz zaletu zan eta ortik atera eban anglikanuen aurkako adorea. Baiña bere fedea zaintzeko beste biderik ez eban ikusten erbesterako bidea baiño.

18 urtera eldu zanean Olanda´ra joan zan, bere antzeko batzukaz, bera kalbinista zalako eta an erlejiño-askatasuna egoalako.

Birritan baitu eben Inghlandia´tik urten nai ebalako, baiña azkenean baimena emon eutsoen William Bradford´eri bere lagunakaz alkartzeko.

Olanda´n sedagilleen ikasle egin zan, adin elduko izan arte eta orduan gurasoakandik artutako ondasunak txautu ebazan eta Leyden´en bizi izaten asi, baiña beste lagun batzukaz mundu barri bat billatu nai eban euren fedea bizi izateko eta era barri baten gizartea eratzeko. Ori Ameriketan baiño ezin zeitekean egin eta Robinson izeneko gizon bategaz Mayflower itxas-ontzira sartu zan eta Ameriketarantz joan ziran.: 1º eguna otoitzean egin eben, urten-orduko artzaiñak egin eutsen berba biblia eskuan eukala: “Bide zuzena aurkituko dogu gutzat eta seme-alabentzat”.

Gogozko ibiltariak ziran. Bidean eragozpen asko izan ebazan eta Birjiniara bagerik Cape Cod´era eldu ziran 1620n. urtean, azillaren 11n. egunean.

An erlejiñoa biziko eben eta errege inglesa onartu. Baiña azkenean eldu ziran lurraldea, ez zan inglesena eta euren gobernua sortu bear izan eben. Lurreratu-orduko idazki bat izenpetu eben; “Mayflower´eko ituna”. Laburra baiña mamintsua ta garrantzi aundikoa Ipar-Amerikaren etorkizunerako: Jakobo erregeari leialtasuna, Jainkoa goratzeko kolonia sortu, fedea zabaldu, erregea ta aberria goratu... gero datorrena beste gauza bat da: Ez da aitutzen erregea, ez da agertzen Europa´ko biziera, erakunde politiku barri bat izango da, askea ta guztiona.

Asieran gauza erreza ez zan izan: Bidean il ziran batzuk, lenengo neguan 51 il ziran... Ez ziran joan ondo gertatuta!

Indijenak lagundu ez ba´eutsen betiko galduko ziran.

Areik etortea txarra izan zan indijenentzat, gauza askogaitik, esaterako gaiso barriak eroiezan aldean, bertakoak iñoz ezagutu ez ebezenak, esaterako naparreria... Gero gudea etorri zan...

1636n. urtean Block Island´en ilda aurkitu eben John Oldham. Kolonoak, ori dala-ta, amabi indijena baiño geiago erail ebezan an inguruan. Asi ziran indijenak errudunen billa eta Pequost´en guda sortu zan.

Etorbarriak irabazi eben baiña ez eben lortu Europa´koa lako gizartea, edestian izan dan lenengo demokraziaren oiñarriak bai ipiñi ebezan.

OLAZAR´tar Martin´ek



**Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia**

Kultura Saila  
Departamento de Cultura

LAGUNTZAILLE

### ZER ALDIZKARIA

**Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:**

**EUSKERAZALEAK**

**BILBAO BIZKAIA KUTXA**

**Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera erooten lagundu eiguzu!**

**Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk´ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.**

**Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.**

**Eskerrik asko!**

# JOKABIDE ZUZENAK (ETIKA) ASMATZEN

Aurrerapen utsa (evolución) bide dala azaldu ete lei etika edo morala, jokabide zuzenaren arauak?

Darwin'ek baietz uste eban, baiña gero gai oneri buruz azkenengo liburuak eskuratu ebazenean eta eritxi ezberdiñak aurkitu, batzuk etika gizakien arteko akordua zala iñoen, beste batzuk sakonagoa dala, bera be zalantzan jarri zan. Ete dauke egokitze guzti oneik oiñarri bakar bat?

Gizakiak etika zentzun bat ba-daukela uste eban, esaterako gizakiena bakarrik da benetako altruismoa, ez beste simioena. Baiña gauzea ez eban argi itzi.

Altruismo biologikoa ez dago simioetan, baiña “moral” gizakietan bai, asikeran leiñuaren barruan, gero errian, gero enda osoan, gero “herentzi” edo etoripide biurtu zan (neodarwinismo dau au). Moral sutsua daukagu, ez gara beste simioen antzekoak. Gure izakereagaz datorkigu ori.

## ZELAKO ALKAR LAGUNTZAK GIZARTEAN?

Darwin'en burubideak ez daroa alkar laguntzarik, balio duanak bakarrik egiten dau aurrera eta orretarako laguntza baliogarria da.

Baiña taldearentzat gauza ona da laguntza emotea. Eun urte geroago agertu zan taldea aurrera aterateko gogoia be baliokoa dala.

## SENIDEAI LAGUNTZA

Pizti guztietan jazoten da senideai besteak baiño lenago laguntzea. Gogoratu erleen alkar-lana. Gizakietan be bardin.

Piztiak emoten daben alkar laguntza, geneena da, baiña gizakiak beste laguntza bat dauko, etxeko laguntza.

Guk emoten dogun laguntza, geneetatik be ba-dator, baiña gure aurretikoak geneen laguntza baiño geiago emon eben.

Amak umeak zaintzen dauz, ori geneen laguntza izan leiteke, baiña geiago be bai. Kant'en irakatsia zan alkar laguntza naimenetik datorrela, berak ez eukan geneen berri aundirik. Baiña gauza bat da biologia'ko laguntza eta beste bat etikak eskatzen dauna. Ez dagoz alkarrengandik urrin.

## ALKAR LAGUNTZAREN AURRERAPENA

Taldea aurrera aterateko gurari bizia geneetatik dator, erleak lez.

Gizakian etika-zentzuna dauko gaiñera. Ortik sortzen dira gizandiak edo “heroes”.

## NOZKOAK DIRA LENENGO JOKABIDE ETIKOAK?

Lenengo gizakiak agertu ziranetik, basoaren eta sabanaren bitartean, lanabesak egiteko orduan agertu zan.

Garunak aundi egin ziran ordu beratzen. “Homo habilis” izan zan, ori lenengo egin ebana.

Neandertalak illak obiratu egiten dauz eta ori etika-arloan dago, alkar laguntzan. Zauriak eukezanak edo agiñik ez eukenak ezin bizi izango ziran “altruismo” barik eta bizi ziran.

Eizarako be bear zan alkar laguntza, gero janariak banatzeko be bai.

Besteak ordea emotea eskatu arren, esaterako azkurea alkarrari kentzeko, amak ez dautso umeari orderik eskatzen.

Ba-dauko etika-arazo onek alkar bizitzagaz zer-ikusia: Lanak banatu!

Erabagiak artzeko neuronak buru-azurrean orman dagoz, edo alboan edo aurrerantza, gizakiengan, besteetan ez dagoz.

## AMAITZEN

Ikusi doguz gure aurretikoak (hominidoak) millak urteetan egin ebezan bideak, abar asko daukazan landara baten antzera zabaltzen dirala.

Bidearen irudia oraindiño ohea da. “Homo sapiens” da hominido bakarra gaur lur onetan bizi dana. Or ikusi dogu oin bigaz ibiltzen ikasten eta berbetea asmatzen edo lanabesak egiten edo janariak billatzen (eiza).

Linneo'k “primates” izena emon eutsen, bere ustez lenengoak ziralako, beste bizidun guztiak baiño lenagokoak.

Txinpazeakaz eta gorilakaz batera bizi gara gu “homo-homo” garanak.

OLAZAR'tar Martin'ek

## EUSKERAZALEAK

### URTEROKO BATZARRA:

Eguna: 2008-03-13

1.º Deia: 71/2'etan

2n. Deia: 8'00'etan

### Egitaraua:

- Aurreko batzarraren agiria
- Urteko kontuak
- Urteko ekintzak
- Batzorderako arduradun barriak
- Itaunak eta eskariak

## 9.- TURKIA



Turkia, izatez, Asia da baiña geroago ta geiago urreratzen da Europa´ra eta emen laterriak sortu daben alkartera be sartzeko eskaria eginda dauko eta bideak artzen diardu. Baldintza gaitxak bete bearko dauz emengo demokrazia edo erri-agintaritzza onartzeko. Gaiñera endaz be bellegiak dira.

Turkiak bere barruan daukaz milloiak kurdoak eta ez da gauza erreza laterri barruan olako etnia bategaz bakean bizi izatea. Kurdoak, gaiñera, ez dagoz guztiak Turkia´n. Laterri batzuren artean zatituta dagoz.

Frantze baiño askoz aundiagoa da Turkia eta Ararat bere mendi nagusia be Mont Blank baiño askoz aundiagoa da. Noe´ren kutzak uriola-ostean lurra artu bear izan ebanean, mendi onetan artu eban, Bibliak diñoanez.

1926n. urtera arte berea eban Turkia´k Konstantinopla edo Estambul deritxon uria, erromatarren Bizantzio.

Uri au zazpi mendixuren gaiñean dago, mezkitez beterik.

Gaur ez da uri au Turkia´ren uriburua, baiña salerosketarako garrantzi aundia dauka, Lurrarte Itxasoaren eta Itxaso Baltzaren artean dagoalako, Bosforo ta Dardanelos itxas-estuak bitarte dirala.

Kanpotar asko joaten da ango azokara itxas-ontzi aundietan.

Uriburua gaur Ankara da, geroago ta aundiagoa izaten doan uria, erdi basamortu baten barruan egon arren, uri orlegia ta barria da.

Turkia´k edesti jakingaria ta ospetsua dauka. Antxe jazo zan gudariz beterik egoan Troia´ko zaldiaren jazokunea.

Anatolia basamortua igaroten joiazala, egarriz il ziran kurutzadetan gudari asko, baiña oraintsuago Frantze´ko gudariak irabazle urten ziran lenengo gerrate aundian.

**OLAZAR´tar Martin´ek**

## IKUSI EMEN, EDESTIAN ZENBAT DAKIZUN

### EDESTIKO TEST TXIKIA

1) Lenengoko kondar edo eres-toak (arri landuak), Bee-Arri-zaarrean (Bajo Paleolítico) Ega Adour, Irrati ibayen ertzean.

- A) 200.000 - 100.000 urte Kristo aurretik
- B) 1.000.000 - 800.000 urte Kristo aurretik
- C) 80.000 - 60.000 urte Kristo aurretik

2) Pompaelo uria 74/119 bitartean...

- A) Lagizti (derecho) bisigodoan sartzen da
- B) Latindar lagiztian sartzen da
- C) Arabiar lagiztian sartzen da
- D) Euzko lagiztian sartzen da

3) Euzkotarrak Carlomagno'ri zer urtean irabazi zioten?

- A) 777'an
- B) 768'an
- C) 788'an
- D) 778'an

4) Napartar bakaldun batek, Almanzor'eri, Hisam II'aren altsein edo ministro bateri, bere alaba bat eskeñi zion, "Abd al-Rahman Antsoxo edo Sanchuelo" dalakoaren ama izango zana. Zein bakaldunetaz ari gera?

- A) Santxo Gartzez II Abarka
- B) Santxo Gartzez III Aundia
- C) Santxo VI Jakintsua
- D) Santxo VII Azkarra

5) Gipuzko (Ipuscua idatzita dator) itza agerietan lenbizikoz

onoko urtean azaldu zan.

- A) 1000'gn. urtean
- B) 1430'gn. urtean
- C) 1025'gn. urtean
- D) 976'gn. urtean

6) Bizkai'ko lenen edesti jauna (señor histórico) onoko auxe izan zan

- A) Eneko Lupiz Bizkai'tar erki-zalduna (kondea)
- B) Eneko Aznarez
- C) Haro'ko Diego Lopez
- D) Yon Begi-bakarra

7) Zer urtean onetsi zun Gernika'ko Batzar Nagusiak Bizkai'tar Anaitasunaren ingurrazti edo idaztokia?

- A) 1394'an
- B) 1199'an
- C) 1237'an
- D) 1325'an

8) 1440'ean Biana'ko Bakal semeak zeñeri eskeñi zien aitonen seme izatearen pribilejio orokorra?

- A) Yerri'ko biztanleai
- B) Baztan'go aranako biztanleai
- C) Sakana'ko biztanleai
- D) Iruña'ko biztanleai

9) Bee Naparro'ko lagizaar edo foruak noiz idatzi zituzten?

- A) XIII'gn. gizaldian
- B) XVII'gn. gizaldian
- C) XIV'gn. gizaldian
- D) XV'gn. gizaldian

10) Lapurdi, Bee Naparro ta Zubero'n ze urtean kendu zuten

lagizaar araubidea?

- A) 1567'an
- B) 1672'an
- C) 1569'an
- D) 1789'an

11) Goyenetxe'tar Bernarta, "Matalas" zergaitik zaigu eza-guna?

- A) Bigarrego Ludi-Gudaketan nazien aurka burrukatu zulako
- B) Bizkai'ko lagizaarrak be-tearazi nai zizkion Gaztela'ko bakaldunari
- C) Lapurdi'ko jauntxo izan zalako
- D) Zibero'n, jauntxoan aurkako jazarpen (insurrección) bultzatu zualako

12) 1655-59 tartean Lapurdi'n anai arteko gudaketa (gera zibilla) sortu zan; nola zeritzan kontrarioai?

- A) Oñaztarrak eta ganboatarrak
- B) Majeur'tarrak eta mineur'tarrak
- C) Sabelxuriak eta sabelgorriak
- D) Liberalak eta foruzaleak

13) 1804'ean "Zamakolada" gertatu zan. Esango al zenduke zer erkitan?

- A) Araba'n
- B) Bizkai'an
- C) Gipuzko'n
- D) Naparro'n

14) Zein urtetan kendu zuten Euzkadi egoan lagizaar-araubidea?

- A) 1939'an
- B) 1876'an

## JAKINTZA

- C) 1888'an  
D) 1867'an

15) Albret'tar Yone bakalde-meak nori eman zion Itun edo Testamendu Berria euzkeraltzeko lana?

- A) Leizarraga'tar Yoanes'eri  
B) Tartas'tar Iban'eri  
C) Axular'tar Kepa'ri

16) Oñate'ko Ikastetxe Nagusia ireiki zutenean, ze irakastalki (cátedra) eskeintzen zuten?

- A) Lutelestia (geografía), edestia (historia), erritar eta kanondar lagiztia (derecho civil y canónico) ta eresertia (música)  
B) Lutelestia, zerkiztia (física), Zerezkiztia (química), aindoiztia (matemáticas)  
C) Erritar eta kanondar lagiztia, zuur-iztia (filosofía), jaungu-iz-

tia (teología) ta Sendakintza.  
D) Edestia, bidiztia (lógica), jaungu-iztia, zerezkiztia ta aindoiztia.

17) Nork irasi edo fundatu zuan Aberriaren Adizkideen Euzko Bakal Batza (Real Sociedad Bascongada de Amigos del País)?

- A) Urkixo'tar Juli'k  
B) Munibe'tar Xabier Mirena Peñafloida'ko erki-zaldunak  
C) Elhuyar anayak  
D) Don Menjón de Andia'k

18) Sortu zanean, Diario Vasco izparringiak zer asmo-izti edo ideoloji zuan?

- A) Bakaldun-zale euslea (monárquico conservador)  
B) Falangista edo palankista  
C) Euzko abertzalea

D) Oroerkidezalea (comunista)

19) Ta Donosti'n argitaltzen zuten "El Día" izparringiak zer asmo-izti zuan?

- A) Oroerkidezalea  
B) Euzko abertzalea  
C) Lekabe edo lege-etsaigokoa (anarquista)  
D) Gizartezalea (socialista)

20) Lenengoko karlistada noiz izan zan?

- A) 1833 - 1839 bitartean  
B) 1834 - 1842 bitartean  
C) 1833 - 1837 bitartean  
D) 1834 - 1840 bitartean

---

### JESUS GURE ANTZEKO EIN ZAN

Jesus gure Jainkoa guztiz Altsua zana gizonez jantzi zan, egiz arrigarria olan agertutea gizonen aurrean.

Jesus maitegarria, egirik ederrenask bultzaturik zatoz, zure izate dama gizadi maiteari eskeinirik gogoz

Jainko izate bera estaldu egin zendun mundu zabalean apaltasun ederra biotzez agerturik gizonei lurrean.

### ZINTZOAREN GAITZAK

Gizon zintzoa, zuzen, eder dabil lurrean zelaiak landurik, gauzarik ederrena egi onbidea da biotzak ondurik.

Euri aundi ondoren lurra esker-miñetan, gogoz, aurkitzen da, pozik dauka barrua egarria aseturik urak lagunduta.

Oi, lur maitegarria, euri eder ondoren, arol arol, zagoz. lengo neke guztiak arindu dira zugan eguzkizko gozoz.

### ADIERAZI JAUNA

Adierazi Jauna zure bide santuak lurralde onetan, egi ta maitasuna bearrezkoak dira bizitza urtetan.

Argi bearra dauka giza semeak lurrez bizitza guztian, ontasuna bear dau giza seme gaisoak lurreko bizian.

Argia ta indarra betorkiguz zerutik bizia ontzera, zerutar ontasunak eroan gagizala bake onenera.

**PAULIN**



# NORTASUNEZ`KO IZAERA'REN (ZENTZUA (II))

Ariñagoko idaz-lanean ikusi dogu, Espainol menperatzaille diabru oneik zelango lan-jokoa egiten daben Euskalerraren NORTASUNA aienatu, urtu edo eurak gure daben lekura aldendu daiten.

Menperatzaillan asmakizun oneik nai-ta erromatarrengandik etorri, gure Euskalerrarentzat kalte aundienak Aragoi`ko II`n Juan`en eskutik agertu jakuzan eta edestian zear asmo bardiñean orain-arte etorrita, gaur gure lepo gaiñean daukaguzenak dira.

Nafarroa`ko errege III`n Karlos "Biotz-Aundikoa" k, ikusi eban Nafar erre- ñuarentzat, gauzak zelan apurka, apurka joan ziran okertzen eta batez-be bere alaba I Blanka Aragoi`ko II`n Juan`egaz 1.420`an bir-ekzondu zanean.

III`n Karlos`ek, ikusi eban zelan erlijioa eta erregeen lege-ekintzak, gero ta geiago ekanduzko arloetan, merkeak edo guzurrezkoak asi ziralara biurtzen eta orregaitik 1.423`an Urtarrilla`ren 20`an sortu eban BIANA`ko Printzerria, andik aurrera Nafarroan errege izateko ezinbestekoa izango zana.

III`n "Biotz-Oneko" Karlos`ek ez eban euki arrazoi-gabetasunik, II`n Juan diabru onek ez ebalako iñungo errenkurarik (escrúpulo), 1.441`ean bere emazte I Blanka erregeña il-zanean, bera errege izateko, bere seme IV`n Karlos eta bere alaba II`n Blanka benetako errege/erregeña ziranak, leenengo banandu, aldendu edo bastartuta, gero pozoituta il ebalalako.

II`n Juan oneri 1.458`an Aragoi`ko erregetza-be jausi jakon eta bigarrenez Gaztelar Juana Enrikez`egaz ekzonduta "FERNANDO KATOLIKUA" jaio zan.

Gizaldi onetan, gero ta gogorrago joan ziralako erritarrak menperatzen, Fernando Isabel`egaz errege-katolikuak ziralara, 1.478`an IV Sixto Aita Santua zala, fedezaindi edo inkisizioa Tomas Torkemada`ren agintaritzan ezarri eban eta danok dakigu zer esan gure eban gauza zikin orrek.

Fernando`k a-zelako maixua euki eban, gero II`n Julio Aita-Santuaren laguntzagaz maltzurkeriz egin ebazan gauzak egiteko, 1.512`an adibidez, Nafar-erreña guzurrezko bulda eta espatakaz menperatzeko.

Gero Austriarrak etorri ziran 1.700`arte eta onekaz euki genduzan babesaren itzarmenak beti zaindu ziran, Espainolak beste gauza-bat esan arren.

Gero V`n Felipe Borboia sartu san eta onek arrabots-guda aundiak ekarri arren, gure itzarmenak Espaina`ko erregeakaz bere legean iraun eban euren artean Salika`ko legeak apurtu arte.

Gu`k orduan, V`n eta VII`n Karlos`eri eskeiñi geuntson laguntza eta bietan galtzaille urten eban lez 1.876`an menperatuta geratu gintzazan, Espaina, Frantzian 1.789`an egin zan maltzur eta lotsa-gabekerizko iraultzaren bidetik

Europa guztia-lez Laterritu egin zalako, gu Euskaldun berezko erri ta erritarrak eta Katalana`k euren menpean geratuta.

Gaurko 2.007`an Mundu onetan danak begitzen dabe EUSKALERRIA`ren IZATASUNA mirari aundi-bat bezala, Euskaldunak bertan gagozelako gure NORTASUNA`ren ASKATASUNA bir-eskuratzeke alegiñean eta guztiz itxaropentsu lortuko dogula, arrazoi osoa gudan daualako.

Egia da, Britania`tik Kadiz`eraño eta Ekialdetik Italia ta Alemania`k mugatuta, Kromaño edo Omo-Sapiens gizak (Atlantida ?) bertan lortu ebalara bere EUSKAL-DEMOKRAZIZKO-JAKINTZA (cultura) edertasun guztian eta Europa`tik Mundura eiza`ren bidez zabaldu zirenak, Euskal-sendia`ren erdi-unetik urrunduta, nai-ta oñarriak Euskerazkoak euki, euren bakardadeko aztura-bidetik beste erabateko izkuntzatan agertu ziralara, izkuntz-barri orrein izenak artuta.

Urrundu zirenai, NORTASUNA eta DEMOKRAZIA`ren ariak ebagi jakiezalako eta etsai bezela agertu ziralako...., gu apurka, apurka gutziagotzen joan giñan daukaguzan Zazpi-Euskal-Lurraldeetan larritasun aundiz bizirik geratzeko.

Gure arbasoak zekula ez ziran joan besteen ardurakaz eta lurkakaz jabetzen, euren oiturak Demokratikoak ziralako eta baktzari lotsa aundian berea emoteko ardurak, ardura aundiz zaindu eben, milla urtetako ikas-bidean eraiki ebezan "LEGE-ZAARRA" k.

Zer egin eben gure arbasoak mirari au lortzeko ?.

Sinismen aundiak euki JAINKOA`gan, Anai-Arreben artean, euren azturazko Ikas-bidean ziurtasun osoz sinisten ebelako gauzak zeatasunezko alegin guztian egiten ebezala eta sinismen aundia EUSKALERRIAN, ondo baiño obeto jakin ebelako, Euskaldun baktza Euskaldunen artean, Euskerazko izkuntzan itzak bezela aditz-osagarriak diran lez, gu-be osagarriak (complementos) garela.

Baiña...., zer gertatzen jaku gaur ?.

Itzarmen bidetik daukaguzan Alkarte guztietatik : « Ezkontza, Seme-Alabarik eza erriak iraun dagian, Alderdi, Alkargo, Alkar-Laguntza, Sendia`n anai-arreba`ren artean, Alkarrezko-Bidetik eta Erritarren artean lotzen gaituen Zentzunezko Arremanetatik » laster aldendu edo banatzen gara ezeren lotsa-barik eta txarrena !! ezeren damu-barik.

Orren erruak-be..., menperatzaillak eukiko ete dauz ba !! ?.

Erriak, zekula ez dau galdu bear dauan NORTASUNA`ren IPARREZKO ZENTZUA eta zuzentasunezko aurrerakuntzan joan, gure ARBASOAK egin eben lez.

## EUSKALDUNAK

Xautzailletasuna (consumismo) sasi-jainkotzat bezarkatzen ba-dogu, JAUNGOIKOA BERA eta GURE “LEGE ZARRAK” alboratzen doguzela esan gura dau. Eta guretzat zoritxarrekoa izan leiteke, gaur iker-lanaren bidez Europa`k egiten dabezan alegiñak EUSKALERRIA bere merezimenduzko lekuan kokatzeko, guk alpertzea.

EUSKALERRIA, EUROPA`ren IZARRA-DA, BEREN ZENTZUNEZKO AUKERAN EREDUA DALAKO gure ARREMANAK EGOKITU DAITEZAN JAUNGOIKOAK eta EUSKALRRIAK BERAK, EZKERTUKO GAITUE.

Euskaldunen artean konturatu bear gara, gure arbasoak eguneroko aztura-bidean gauza txiker xeekatutatik, Euskal-bizitz erakusgarriko gauza aundi eta argigarrira (iluminador) eldu zirala eta guk ezeren lotsa ta bildur barik jarraibidezkotzat artu geikena egin ebela. Gurentzat zertzelada (dato) edo txetasunezko gauza-txiker baiño besterik ez dala, bere itxuran edo ederrago agertu daiten, guk bete bear doguzelako egunero egin bear doguzan gauza zeatz eta zentzun aundiz arduraren xeetasunakaz. EUSKALERRIA belaunik belaun JAUNGOIKOA eta Mundu`ko gizartearen aurrean, bere edertasun ederrenean agertu daiten.

Begi bistan, errez egin leiken gauza-lez agertzen bada-be, ez da erreza ez !!, Gaur gagozan Mundu onetan xautzailletasunezko bizi onek menpetuta, ardurazko gauzak alboratuta izten doguzelako.

Baiña xautzailletasunezko arduragabetasun orren zeregiña, ez da gure erritarren artean bakarrik sortzen, Mundu au zuzentzen dabizen artean-be bardin agertzen dalako. Gure ARDURAZKO EGIA`k edo bearrezko zeregiñean egin bear doguzan GAUZA`k EGIA`ren ULERMENEAN, zentzun ta zeatzasun aundiak bear dabzelako euren lekuetan ondo adiñondu (ajustar) edo eta egokiro (ajustadamente) kokatu daitezana.

BEREZKOTASUNARI, orregaitik agertzen jakoz bear dauan beste baiño ainbat etsai geiago, Mundu onetan eta gure artean batez-be, GARAILLE dalako ARDURAGABETASUNA.

Arduragabetasun orreik zergaitik diran jakiteko, aurkeztu daigun egitamu-saio bat eta egoera larri oneik zergaitik diran ikertuta, ikusiaz batera jakin daiguzan, zelango ezberdintasuna dagoan gure arbasoen jokotik, gaur guk jolazten dogun jokora.

Orretarako baiña, aztura-bide (metodo-empirico) edo lojikazko egitamu-saio au egiteko, bere oiñarrietan baldintza oneik aurkeztu bear dodaz, gero baldintza guztien laburpeneko ondorio bategaz amaitzeko.

Lenengoa: BIZITZA`ren JAIOTZA eta IKAS-BIDEA`k izango dira.

Bigarrena: BIZITZA`ren BEREZKO BATSUENTASUNEZKO (pluralidad) LEGE AURREAN EZIN-BESTEKO NEURTASUNA`k.

Irugarrena: MUNDU ONETAKO GIZARTEA`ren JAKINTZA eta ZERGAIK DEMOKRAZIA ta OREKA`ren BEARTASUNA.

Laugarren: ONDORIO`an:

MUNDU ONETAN, EZIN-BESTE GAUZA`rik EGIN eta EDETI GUZTI`tik ZEAR, EGIN BEAR DIRAN GAUZA GUZTIA`ri, ZERGAIK EMON BEAR JAKEZ....., GAUR DERITXON ESKUIÑ-ALDEKO edo XAUTZAILLETASUNEZKO

NORA-BIDE ORI ?.

ZER-DA....., edo ZERGAIK DERITXON “EZKER ZUZEN-

BIDE BARRI ORI” eta ZERTAN GERATU DA ?.

AZKENEZ “EUSKALERRIA”`gaz AMAITZEKO.

a) BIZITZA`ren JAIOTZA eta IKAS-BIDEAK: Bizitz onetara belaunik belaun`ezko ondorengotasunean jaioten gara eta ortik asi-ta badaukaguz bideratuta, zelan, gauzaren iker-lan`etatik ikasten edo adierazten (interpretar) doguzan gauzak, bear daben jakintzazko ulert-arazian egokitzeko, gure leiñu edo sendituta dagon gizarteko zabaltasun orren gogoan edo oroimenean oituratu daitezana. Gero, jakintzan ezartzen dana, ondoren datozen erritar-barri guztien ezaguerazko mendean egon daiten.

b) BIZITZA`ren BEREZKO BATZUENTASUNEZKO LEGE AURREAN

EZIN-BESTEKO NEURTASUNA`k: Bizitz onen lurretan, amai-gabetasunezko lore-motatan daukagu landaretza, nai zuaitz, belar, goroldietan eta abar. Gizartean ta aberetan be-bai eta ez dira gutxiago ura`k eta aizeak daukazenak, bakoitzak bere izatasunean bizitz oneri, JAUNGOIKOA`k emonda, euki bear dauan zentzua emonten dautsielako.

Emen argi ikusten dana, bizitzak beren eten-bako jaiotzagaz eta ekintzarekin, daukagun konorteko zentzuan, berak bideratzen gaituala. Gure zentzumenezko arrazoiari, berak bideratzen dualako an egin bear dana eta zelako neurriekaz egin, sal-bide edo eskatu-eskeintza baten antzera.

Bearrezko neurtasun onen barruan, beste garrantzizko gauza-bat agertzen da eta ez da errez ulertzekoa: “Berezkotasunaren legezko eskeintza orren zentzuan, guk almena daukagula zelan erabili asmatzeko”. Adibidez: Berezkotasunak eskeintzen dauan lez eta guk bere legean, apur bat edertutako menduteagaz, fruituak eder ta ugaritasunean artzeko ta urrengoan be emon dagian gure atsegintasunerako, edertu egiten ginduzan eta egiten doguz, baiña sekula ez... ezer !! gure norkeriaren alegiñezko bidetik, berezkotasunaren aurka egiten doguzan gauzakin”. EZETZA, BEREZKOTASUNA`k BERA`k !! bereala emoten dauskulako.

Zergaitik berezkotasunaren zentzuan ezetz ori ?.

JAUNGOIKOA`ren BORONDATEZKO LEGEA dalako, gure almenean ez dago egilletasunik izatea, erabil-almenekoak baiño. Orregaitik dakigu “ZER GERTATZEN DAN” baiña sekula ez !! “ZERGAIK GERTATZEN DAN”.

Aalmen ori euki bagendun, zer !! gertatuko zan Mundu onetan ?

ATUTXA`tar PAUL  
Zornotzan 2.007`an Bagilla`ren 12`an

# 1.- SARRERA

Munduko edertasunak ikusteko, gauza aundietara naiz txikietara begiratu geinke. Dana da arrigarria. Baiña gauza aundietan agertzen da errezen arrigarri izate ori. Txikietan be molekularak eta atomoak aztertu ezkeru, gauza arrigarriak aurkitu leikez.

\*\*\*

Egia esan, aunditasunaren aunditasunagaz galdu egiten gara. Ba-dakigu argiak segundoko 200.000 km.'ko bidea egiten dauana eta argi urtea esaten dogunean, argiak urte baten egiten dauan bidea esan gura dogula, urteak daukazan segunduak kontuan artu ezkeru, eta segundo 200.000 km. dirala jakiñik, urte baten egiten dan bidea zenbat dan guk ezin ulertu. Lar arrigarria jaku "argi-urtea", bat izanda be, ulertzea.

Zer izango da izar bat edo izar moltzo bat 160.000 argi-urteko bidea eginda aurkitzen dogula diñogunean? Edo milloiak argi-urteak aitatzen doguzanean? Benetan galduta aurkitzen gara!

Dana dala, urrengo idaz-lanetan olako gauza arrigarriak aitatuko doguz.

\*\*\*

Asi gaitezcan lenengo urratsetatik.

1519n. urtean Magallanes itxas-gizon ospetsuak, lurberaren egoaldetik ikusten diran izar bi ikusi ebazan. Orduetik asita deritze Magallanes'en Izarrak. Eta bere jaioterritik ikusten ez ziralako, arrituta, asi zan zerua aztertzeko bideak kontuan artzen.

Magallanes'en izarrak ez ziran izarrak, galaxia txiki bi baiño. Eta galaxia txiki bi oneik gure bizileku zabal ikaragarria zan Esne-Bide edo Via Laktea'ren inguruan biraka dabilte eta urrean dagoz, lurra eguzkiaren inguruan lez.

Emendik Magallanes galaxia orreitera 160.000 argi-urteko bidea dago.

Andik urrean dagoan Polo'ko izarraren ondoan dagoz Perseo, Kassiopea eta Ursa aundia eta oneik Orion'egaz batera dira zerua apaintzen daben 88 arloetariko bat.

Izar-moltzo askori, Ptolomeo asita, piztien izenak ezarri jakez: Andromeda, Leo, Herkules, Taurus.

\*\*\*

Ona emen sakontze onetan egin dan aurrera -bidea.

1) Samos'ko Aristarko (K.a. 310). Onek eguzkia ipinten eban izar guztien erdian. Orretan bera izan zan lenengoa.

2) Koperniko: XVI gizaldikoa zan: Barriro eguzkia ipinten eban erdian eta iritxi ori ziurtatu eban Galileo'k. Jupiter'en lau sateliteak aurkitu ebezan.

3) Kleper'ek XVI gizaldian planeten orbitak zeaztu ebazan.

4) Newton'ek egin eban zientzi-lanik aundiena, batez be aztuntasunaren legea (gravedad) aurkitu ebanean. Gaiñera teleikuskin barria egin eban, askoz obea.

5) Hubble (1924): Andromeda aztertu eban eta izar-arteko bideak milloiak argi-urteak bide dirala neurtzen ona izan zan. Orain 15 milloi urte jazo zala Big-bang esan eban. Artean dana zan bola aundi ikaragarri bat eta orduan lertu egin zan eta arrezkeru izarrak eta onein moltzoak bideak egiten doaz aurrera ta aurrera, gaur be bai.

6) Messier: Onek egin eban zeruan dagozan izarki guztien katalogoa, 100 gauza oin lez artuta: Galaxiak, nebulosak, kumuloak, Pleiadeak...

\*\*\*

Ori dana dogu ba lan oneitarako aztergai eta urrats bi emongo doguz: lenengoa eguzkiaren ingurua aztertuko dogu eta bigarreanean beste mundu zabala edo zeru sakona.

**OLAZAR'tar Martin'ek**

\* \* \*

**BIZKAITARREI BIZKAIERAZ**

# ELEZARRAK

Gaur gure ele edo literatura zarra izango dogu gai idaz-lan onetan. Zaarra diñogunean, lenengo liburua argitaratu baiño lenagokoa esan gura dogu

...

Aita Santi Onaindia-ren “Milla olerki eder” liburua daukagu aurrean, baiña, irakurle, askorentzat dana labur-labur agertzea izango da onuragarria. Liburuan 35n. orrialdetik 169n.era dago dana, eta izkia naikoa txikia da.

Aberastasun ikaragarri bat dago or, 139 olerki eder eta euren artean antzerkiak diran “Pastoralak”.

...

Baiña irakurle! Ba-dakizu zer jazo zan aita Onaindia-k “Milla olerki eder” liburu ederra argitaratu ebanean?

Ara! 1954n. urtean argitaratu eban liburu ori aita Santi Onaindia-k, eta asieran agertzen dauz bear ebazan baimenak: Ordenakoa, Erki-Buruarena, Gotzaindegikoa eta Donosti-ko Gotzain-Ordezkarri Nagusia zan Sudupe-tar Jose-rena. Guda-ostean argitaratzen zan lenengo liburua zala uste dot.

Eta baitu egin eben liburua, argitalpen osoa! Liburu bakoitxak milla ta berreun orrialde daukaz. Izkia naikoa txikia. Ez zan ba merkea izango! Etorri ziran poliziak Larrea-ko Lekaidetxera eta liburu guztiak eroan ebezan.

Baitze orrek ondoren bi ekarri ebazan: Bata, Polizietxea garbitzen joaten zan andereak ale batzuk etxe orretan ostu egin ebazala eta Aita Santi-ri emon. Ondo esana da “lapurrari ostuten dautsonak eun urteko parkamena merezi dau”. Eta bestea: Ezelako uste bagerik, Santi Onaindia-k urriñeko laterri batzutatik zorion-gutunak artu ebazala ain liburu ederra argitaratu daualako. Zelan ori? Orduko diktadurak liburuak erbestera bialdu ebazan, emen euskereari laguntzen jakola eta euskal-liburuak argitaratzen dirala baieztatzeko.

Ori da aurpegia, ori!

...

Liburu eder orretatik, oraingoz, elezarrak, olerki zarrak artzen doguz. Ona emen guztiak lauki baten:

## Elezaarrak

1.- Epika edo gertakuntzak.....	18 olerki
2.- Lirika edo maite-leloak.....	54 olerki
3.- Irri ta negar kantuak edo satirikoak. ....	27 olerki
4.- Ardo-kantak edo anakreontikoak.....	10 olerki
5.- Jainkotiak.....	25 olerki
6.- Pastoralak (Antzerkiak) .....	4 olerki
Gutziz: .....	139 olerki.

Gero esango dabe euskaldunak motelak garala idazten! Au dana idazten asi-aurretik.

...

Eta lan au amaitzeko, pastoralai buruz zerbait.

Erdi-Aroan antzerkia erriko plazan egiten zan eta mota askotako antzerkiak izan zeitekezan: Eriotzeagaz dantzea, eskarnio-dantzak, esku eskoiak ezkerari, probintzialaren dantzak eta abar.

Baiña antzerki iraukorrak bitarikoak geratu ziran: Eleizkoiak eta errikoak. Elizkoiaren artetik sortuak dira geroago datozen Misterioak eta Auto Sakramentalak.

Pastoralak eleizkoiaren artean sartzen dira, eleizakoak ez diran beste gai batzuk be agertu-arren eta ba-dauke antza Misterio de Eltxe ta olakoakaz.

Iparraldean Pastoral asko dagoz, argitaratu begeak be bai, eta Erdi-Aroko antzerkiari buruz Europa-n dagoan altxorrik aundiena dira gure pastoralak.

XVI gizaldia baiño lenagokoak dira baiña ez dakigu noiz asi ziran. Gaur be antzezten dira, telebistatik be ikusten doguz,

Antzerkia asieran plazan egiten zan, etxeetatik ikusten zala. Orrelan antzezten ziran Grezia-n Eskilo, Sofokles, Euripides, Aristofanes eta olakoen antzerki ospetsuak. Koruak zeregin aundia eukiten eban, abesti asko sartzen eben eta iñoz ez dira agertzen gizonak emakumeakaz nastean.

Pastoralak “gorriak” eta “urdiñak” dagoz. Poesiarloan ez dira gauza aundirik baiña ba-dauke gatza ta ozpiña. Erdel-itx asko artzen dabez.

G. Hérelle jaunak liburu ederrik asko atera ebazan Pastoralak dirala-ta eta berak gaiak onelan banatzen ebazan:

- 1) Atxiña aroa (2)
- 2) Itun Zaar-aroa (8)
- 3) Itun Barri aroa (9)
- 4) Santuen bizitzak (18)
- 5) Guda abestiak (5)
- 6) Elebarriak (11)
- 7) Ipuñak (13)
- 8) Aratostekoak (2)
- 9) Zintzarrotsak (16)

Guztiak dira zuberoraz idatziak.

**OLAZAR-tar Martin-ek**

# ZENBAT BURU, AINBAT ABURU? (1º SARIA)

Irudipenezkoa.

Itzaldi baten aintzin solasa dugu. Areto eder eta apain batean, jarleku eroso bat artuta nago. Itzaldia astear, adi- adi nago. Erria, guretako edozein izan liteke.

Onela dio aurkezleak.

-Izlariak auexek dira: BATU, BIZKAI ETA GIPUZ.

Ezizenez aurkeztu dodaz noriak. Beren iritziak, askoren aotan entzun daiegun. Esaera zaarak diñoen lez, emen be esan daiegu: "Zenbat buru, ainbat aburu". Idazburuan galde ikurraz jarri dogu oster. Zergatia? Entzule bakoitzak atera begi bere iritzia, entzundakoaren arabera.

Ezizenak erabillita, aalik eta urrutien naiko geunke iñor mintzeko bidetik. Azken batean gure artean iritzi batekoa izan ala bestekoa, danok, ustez, asmo onakaz bait gabiltza. Gure artekotatik euskeraren galelarik ez geunke iñork nai. Jardun orretan bide gurutzeak dagoz, oster, eta batzuetan ez da errez izaten zuzenenarekin asmatzen. Oba bearrez izatekotan jardunda be, sarritan gero usteak ustel gertatzen bait dira.

Gaurko itzaldian, bada, euskera dogu gai. Sarri aipatzen da euskerari buruz, gure arbasoen oiartzuna dala. Antzin antziñakoa. Zazpi milla urte ei dauz. Ori diñote adituek. Eta guk zer egingo ete dogu?

Eta jarraipenari begira, orain 40 urte euskera batuaren inguruan eztabaida larriak sortu ziran.

Baita be zatiketa galanta gure erkideen artean. Eta noiz ez gara ibilli euskaldunok zatikatuta, eztabaidan?

Ori be, zoritxarrez, gure-gurea izan nonbait, euskera lez.

Eta emen galdera larria: Urrengo 40 urteren buruan, batasunaren billa dalakoan artua dan bidetik, ez ete leiteke gerta, 40 urteko diktadurak lortu ez ebana? Alegia euskal araudi baten bitartez bizkaiera baztertuz, azkenean deuseztatzea?

Gaur egun, euskera batua izenekoan murgildurik dabilzan gure gazte eta gaztetxuak, urrengo 40 urteren buruan, irurogei urte inguru izango dabezenak, zein motatako euskera erabiliko ete dabe euren oizko jardunaldietan? Edo agian, euskera erabiliko al dabe? Entzutera goazen itzaldiak, azken batean galdera orri erantzuna ematearen bidetik dator, aal dan neurrian.

Ara bada, gaur entzutera goazen berbaldiaren sarrera gisa, galdera larri oriek.....

Eta kontuan bear dogu, bizkaiera euskeraren % 50 inguru dala. Euskera erabilia, egunoroko bizimoduan. Eta beraz, Erriak erabiltzen dabena. Gipuzkoan be sartzen dana. Garai bateko mugak egiterakoan zailla izan zan nonbait ori bereiztea. Bergara, Eibar, Elgoibar, Mendaro. E.a. batzuk aipatzearen, Bizkaiaiko muga dagozan Gipuzkoako erriak dira. Bizkaieraz mintzatzen dira.

Gai sakona eta larria, beraz. Erabilten ez dan izkuntza il egiten bait da.

Asi gaitazan, bada, aurre berba onen ostean, gaiaren mami mamian sartzen.

Gaurko itzaldia esan lez, euskeraren etorkizunera begira da; atzekoa geiegi urratu gabe oba. Leengo zauriei ukendua emanda, oba. Ostean iru ikuspuntutik aztertzeraz goaz euskera

batuarena, eta aurrean daukaguzan izlarien alkarrizketa entzuteko aukera izango dogu.

Orrela bukatu du aurkezleak. Eta entzun dugun bezala, batuaren leia sortu zenetik, 40 urtetan zear izandakoari buruz mintzatuko dira gure izlariak. Eta ortik, geroari begira.

Ni, esan bezala, entzuleen artean nago, eta entzundakoaren berri emateko izango da nire egin bearra.

- Asteko, ezkerretik asita, berba egizue, sarrera gisa, txanda motzean bakoitzak. Dio aurkezleak.

- BATU. 1968 gn. urtean, nik, artu ziren erabakien alde egin nuen. Eta ez dut damurik izan. Geroztik uste dut euskerari bultzakada galanta eman zaiola. Euskara bat ezarri dugu Erri Erakundeetan, eskolan, eta komunikabideetan, eta denok ulertzeko euskara erabiltzen dugu, baturatu egin delako. Beraz, nik aal dudan neurrian, daukagun denbora laburrean, batuaren onurak azaltzen aaleginduko naiz.

-GIPUZ. Nik ez nuen ontzat artu 1968 erabakia. Erri euskeraren alde atera giñanen artean nintzen. Eta baturatzea ori ez zela azkarrean eta laister bidetik egitekoa. Gaiñera lapurtera zaarra artu bear zela eredu, esan zen, eta ortik ainbat eta gutxiago ez nuen irtenbiderik ikusten euskera batuarentzat, eta ez da ere euskeraren iraupenarentzat. Ni ez naiz iñoren aurka jardutekotan etorri. Euskera erabiltzean gaur egun entzuten ditugun utsuneak, eta okerrak azaltzen saiatuko naiz, uste apalean.

-BIZKAI. 1968ko erabakiekin txunditurik gelditu nintzan. Euskera batua egiteko, ez nuan ikusten bizkaierarentzat tarterik. Ez nuan ikusten biderik, batez be aditzarekiko. Gero H- izki mutu ori idatzi bearra. Eta ainbat urtetan jardundako idazleei, urte pilla gaiñean ebelarik, ortografia berri baten mendean sartu bearra eskatzen eutsien. Nire jarduna, itaunak egiterarena izango da geienbat. Ez bait dogu ezer aurreratzen iñor astinduta. Al dogun neurri apurtxoan, geure bizkaieraren alde egitea oba.

Ondoren BATUK onela dio:

- Uste dut zenbakietan azaltzen denez azken 20 urte auetan euskeraren ezagutza geitu egin dela. Euskal Autonomian elebidunak bostetik bat ziren. Euneko 20. Ogei urte geroago, euneko 30. Orrek adierazten digu 200.000 iztun geiago badauzkagula. Eta or batua erabilli da.

-GIPUZ. Zu eta ni ari geranarekin, ez det alde nabarmenik aurkitzen. Zuk batua deitzen diozu. Nik gipuzkera dela, geienbat, esango nuke. Zuek ordea, asieran, eredutzat lapurtera zaarra aldarrikatu zenuten.

- BIZKAI. H-izkiak izan al dau eragiñik iztunak geitze orretan. Batu?

- BATU. Iparraldekoek eskubidea zuten, beren oguzkera kontuan artzeko. Eta beraiek H- izkia oguztu egiten dute.

- BIZKAI. Eta ildo orretatik, zer diñozu, Batu, bizkaiko aditzari buruz?

- BATU. Oroar esateko, aurrera egitekotan, beti zerbaiten galeran izaten da. National Geographic erakundetik esandakoa jasotzen dut emen: 3.500 izkuntza galduko omen dira, eta gureari eustekotan euskara bat eta indartsua bear dugu

## IPUIN-SARIKETA

– GIPUZ. Zuek ordea, Lapurtera zaarra aurkeztu zenuten eredu gisa eta orren ildotik egin bear zela batua esan zenuten, euskal literaturan aintzinaotik zetorrelako. Guk berriz genion EUSKERA INDARTSUA ERRIAREN AOTAN ERABILTZEN DEN NEURRIAN izango dela. Eta Iparraldera begira, azken batean, zer egin dezue batuzaleok? Gizon jakintsu eta ospetsu batek, Iparraldekoa, ain zuzen, batuaren aldekoa izanik ere, auxe esan zuen, 1968 ko urtea pasata andik urte batzuetara: (Gutxi gora beera, mamia kontuan izanik) “ Iparraldekoak, batuaren esparruan sartzeko, gaztelera neurria aundi xamarrean ikasi bearra daukagu”

– BATU. Dena ez da ateratzen nai bezala. Eta gauzak aurrera joan aala, asmotik zetoztenak aldatu bearra izan da.

– GIPUZ. Zer alde dago zuk eta nik itz egiten degunaren artean? Beriz diot. Aditz batua izenekoan, ia dena, dena ez bada ere, gipuzkera da. Eta gaur egun edabideetan, aldiakarietan, eskoletan, eta Erri Erakundeetan darabilkiten euskerak, zer alde du gipuzkerarekin? Zuk azaltzen dezun euskeraren aldeko aurrerabide orretan, zein motatako euskera darabilkizue? Lapurtera zaarra ala gipuzkera geienbat? Hizkia berriz, Iparraldekoek, oguzten dituzten H- batzuk ere utzi bearrean aurkitu dira batuaren bidetik.

– BATU. Kontuan izanik, gero eta zailago dela familiaren bitartez soillik euskaren jarraipena, inñolako zalantzarik gabe, izkuntza sistema da biderik onena euskara ikasteko.

– BIZKAI. Bai baiña, zuok batua deitzen dozuenaren orretan, nik gipuzkera ikusten dot. Eta gipuzkerak zergatik dau aurrera jarraitze orretan bizkaierak baiña garrantzi geiago?

– GIPUZ. Bai, ondo diozu BIZKAI. Eta, non utzi dezue lapurtera zaarra?, Batu. Ori ere bidean galdu al zenuten? Orretarako gure erri alfabetatu gabeari, eta gure umeei ipiñi al zenioten H- izkiaren zailtasuna? Bearrik ez eta. Batzuk bai, eta beste batzuk ez. Eta oguzkatu, ez da bat ere!! Zertarako jarri beraz, gaiñera lapurditarrak ez badituzue kontuan izan? Eta gaztelera mordo bat ikasi bearrean baldin badabiltza batua izenekoak ikasteko?

– BATU. Dena dela, euskara neurri aundi batean, oizko tresna izatea biurtu dugu.

– BIZKAI. Entzuten dogunez, ikastoletako umeei, amarretatik iruk besterik ez ei du euskera erabilten ikastolatik kanpo. Eta ume bizkaitar batek nola erabilliko dau euskera etxean, aitita-amamakaz? Oneik bizkaieraz berba egiten dabelarik? Eta ume orrek etxean bizkaiera ikasi, eta gero eskolan bizkaiera ori bazterrean utzita, batua izenekoak ikasi bear izan dau. Batua, diñot, gipuzkera obeto esanda, ala ez?

– GIPUZ. Eta goiko Erakundeetan entzuten degu beste au ere gaiñera: “ Itz egiteko bide erraza eta atsegiña ez bada, nekez itz egingo dugu euskaraz geiago eta toki geiagotan” Bizkaian eta Iparraldean, ordea, ezin da bete baldintza ori.

BIZKAI. Eta zelan izango ete da, bizkaiera emendik beste berrogei urtera? Azken batean, Euskal Erakundeetatik sortutako erabagiak, ez ete dabe ekarriko bizkaieraren galera? Orain Bizkaian batua ikasten dabezen umeei zer berba egingo dabe? Aldi berean ez bait da ezertarako azaltzen bizkaiera edabideetan.”Iparraldearen orena” dalakoa entzuteko aukera ematen deuskue. Eta “Bizkaiaren orduak”, noiz joko ete dau? Zenbait politiko bizkaitarrek, Lege Biltzarrean, aurretik idatzita, noski, batua izenekoak erabilten dabe. Gero andik kanpora dakien bakarra, baldin badaki, bizkaiera. Ez bait da alboan uztearena soillik izan. Zearo baztertuta dago, bizkaiera

Erri Erakundeetatik; % 50tik baiña geiagok, berba egiten dabena, edo berba egiten ebena beintzak ain erabagi zorrotzak orain 40 urte artu ziranean.

– GIPUZ. Zenbat buru, ainbat aburu, azaldu ziren artan, nolabait esateko, euskaldun berriak izan zuten tarterik nabarmenena. Euskaldun zaar eta jakitun asko, gaitzetsiak izan ziren . Azken batean egin dezue egiteko, ez zegoen asmatu bearrik, asmatu ziranak, euskalkien aurka, errian sustraitutako euskeraren aurka. Izugarriak entzun genituen: “Garo eta gorotz usaikoa utzi, eta euskara urbanoa eta funtzionala bear dugu””. Panfleto izeneko bat ere zabaldu zan.....

Eta zer ez ziran esan! Euskeraren alde, lan batean, urterik larrietenan, egin zuen gizon jakintsu eta ospetsu bat “ euskeraren etsai izendatu zuen” euskaldun berri batek

Eta azken batean lapurtera zaararenak porrot eginda , gaur egun batua izenarekin darabilkiten, ez al da gaitzetsi zituzten jaun oriena? Gipuzkera alegia.

Nire aldetik bukatzeko adibide batzuk azalduko ditut gertatutakoaren lekuko gisa, orain amar, eta amabost urte entzuten zirenetatik. Eta baita gaur egun entuten ditugun batzuk. Zer nolako euskera mailla ere erabiltzen degun, kontutan ere bear izaten bait da. Ez bait da naikoa izaten zenbatzerakoan, besteirik gabe, euskeraren ezagutza soillik aipatu. Zuzentasuna, gaitasuna, eta erabillera, kontuan bear azterketa orretan.

Esandakoaren arian , ona adibideak orain 15 urte inguru entzuten genituenetatik, esatari batzuen aotik:

- Giro tensoa Unibertsitatean
- Berrietako zuzendarien baimen espresua lortu bear da.
- Eskerrikasko zure ikustia
- Inkopabilitatearen komisioa.
- Funtzioan dagoen Ministroak esan du.
- Hainbat bertso diferente egin da.
- Erantzuna bear dut 48 ordutan.
- Premia zuela operatzea esan zion medikuak
- Influentzien trafikua
- Extraterrestreak inbaditu dute gure platoa.
- (Norbaitek zerbait esanda, erantzuna: “Au batua da”)
- Nik euskera menderatzen ez zutenen “imperioa” esango nuke.

– Eta gaur egun ere or aipatutakoak ez badira entzuten ere, gipuzkera artu delarik “batua” gisa, ondoren dijoanarena ikusita, ez al lukete geixeago saiatu bear, euskera erabiltzetik bizi direnak? Orra adibide batzuk:

• “Bertan “ aditzlagunaren erabillera. ( Leenengoz, beste zeaztasunik gabe, mintzatzen ari denaren tokia izan liteke). Eta ildo orretatik, “Emen bertan- or bertan edo an bertan” zeaztua bearko luke izan.) Beraz, entzuten ari geranaren arabera, esan dezakegu, amarretatik bederatzitan, oroar esanik, alperrik sartzen dutela batzuk “Bertan” aditzlagun ori. Esate baterako: “Gaur Tolosan degu batzarra, eta bertan izango den gai bakarra...” Or “bertan” zeaztearena alperrikakoa da. Ori kenduta:” Gaur Tolosan degu batzarra eta izango degun gai bakarra.....” , ez al da naikoa? Orrelako oker asko, eta asko entzuten ari gera egunoro. Besterik da esatea: “ Gaur Tolosan degu batzarra, eta bertan bazkaltzekotan gera”. Bi ekitza bait dira Tolosan. Bat batzarra eta beste bazkatzearena. Baiña beste orretan batzarra, gaiarekin lotua dago, beraz alperrik or “ Bertan” aditzlagunarekin zeaztea.

**Josemaria Murua**

## 22.– JAINKO ERREMENTARIA (VULCANO) (ERROMA)



Jainkoen nagusi zan Jupiter eta Juno onen emaztea. Juno'gandik jaioa zan Bulkano suaren jainkoa.

Bein baten Jupiter eta Juno asarratu egin ziran eta demanda aundia euken senar-emazteen artean. Bulkano sartu zan bakeak egitera. Baiña ordu txarrean gizajoa: Biak aurka eukazalakoan, sutan jarri zan bizi-bizi Jupiter eta semeari anka batetik eldu eta bota eban zeruen barrura amurruz. Or ibili zan Bulkano gizajoa zeruan zear, eta azkenean Lemos'ko ugartean jo eban lurra eta iztarra apurtu eban. Errezkero beti erren ikusiko dogu Bulkano.

Bulkano zan suaren jainkoa eta bere sutegia Etna mendiaren barruan eukan. Lan ederrak egiten ebazan sutegi onetan, bai burdiñez eta bai urrez eta zidarrez. Beste jainko guztiak beregana joaten ziran tresna bereizi bat bear ebenean eta Bulkano'k pozik egiten eutsen eskatzen eben lana. Bera oso ertitsua zan eta egiten ebazan lanak be ikusgarriak benetan.

Sutegia iziotu, meatzak urtu eta goritu lenengo eta gero ingude-gaiñean malluka moldatu ziran bere lanak

eta orretan ebillala, Etna mendiaren erpiñeko zulutik sekulako kea, sua eta garrak agiri ziran, baita, sarritan, sutegiko ondakiñak be.

Bulkano'gandik datorkie gizakiai sutegiko lanerako kemena ta trebetasuna eta bera zan gizakiak erabilten eben suari indarra emoten eutson jainkoa. Errena izan arren, indartsua zan eta beste jainkoak bildurra eutsoen.

Egun baten Juno bere amak eskatuta erakutsi eban noraiñokoa zan bere indar ori: Janto ibaia urak aunditurik etorrela, bere muga-barrura sartu eta itxasora zuzen joatera beartu eban. Sua atera eban sutegitik eta Janto ibaiaren aurka bota su ori, urgaiñean joiazan zugatzak egurrak eta saborrak erre ebazan eta ur aundiak irakiten jarri.

Ibaiko arraiñak ezin jazan izan eben beroa eta lurrera jauzi egin eben. Janto ibaiak ezin amatau izan eban sua eta Bulkano jainkoaren menpean geratu zan.

**OLAZAR'tar Martin'ek**

## 2.– PERIKLES: DEMOKRAZIA

Jakituria sortaldetik etorren: An izan ziran arlo onetan ospetsuak Buda, Konfuzio, Sinto...

Baiña sortaldean jakituria antxiñako kondairakaz eta erlejiñoakaz batu eben eta nortasun bereizi bagerik geratu zan.

Jakitori ori Grezia´tarrak artu eben eta emen, erlejiñotik at, nortasuna emon eutsoen. Au da beste batzuren artean Perikles´ek egin ebana.

Egia esan, izan ziran burrukaldi latzak presiatarren eta Grezia´tarren artean, batez be Salamina´ko gudaldian. Une larria benetan axe! Beste mundu bat izango zan gurea persiatarrak irabazi ba´eben. Jantipo Perikles´en aita izan zan gudalburu.

..

Grezia´n, itzi dagiguzan alde batera espartarrak. Onek gogorkeri-zaleak ziran eta agintaritza bakarraren alde, demokraziaren aurka, egozan. Artu dagigun Atenas´en demokraziaren bidea. Perikles´ek eroan eban bide au gorengo maillara, berak ori egin al izan eban 30 urteko agintaritzan.

Aiztu-eziña da jokabide orrek gaurko mundurako sortu eban aldakuntza!

..

K.a.497n. urtea zan. Jantipo gudalburu aundiak seme bat izan eban eta Perikles ezarri eutson izena.

Perikles´ek demokrazia sortzeko erakundeak, demoak, asmau ebazan, inguruan erri osoa zala. Onelan agindu eban 30 urtean eta Esparta´ko “trirano”ak baiño aginpide geiago lortu eban..

Orretarako eta bide orretatik Atenas apaintzeko ta bere legeak sendotzeko eralketa aundiak egin bear izan ebazan eta orrelan egin al izan ebazan etxegintza-lan arrigarriak eta ertibidekoak, eredugarriak. Laurion´en aurkitu ziran zidar meategiak be laguntza ona emon eben.

..

Konturatu zan erritar lez artuak ziranak ezin daitezkeza geiegi ugaritu eta K.a.´ko 451n. urtean erritarra izena ta eskubideak lortzeko baldintza oneik ezarri ebazan: Aita eta ama izan daitezela erritarrak, ez daitezela izan ezkontza nastatuen umeak, ez daitezela izan etorkiñak.. Eta erritarrak ez ziranak ez euken lanik eta ez saririt.

..

Ez zan dana ona Perikles gizon ospetsuagan. Alde batetik berak egiña da Akropolis ospetsua, Partenon aundia barru dala, eta Atenas uri osoa etxe ederrez apaintzea. Baiña ori dana egiteko zergak goratu-bearra izan eban eta zerga oneik ordaindu-eziñak biurtu ziran erritarrentzat.

Ez da aiztu bear an alboan egoala Esparta zelatia!

..

K.a.´ko 431n. urtean izan zan Peloponeso´ko gudaldia eta espartarrak bizi-bizi etorri jakozan aurka. Indartsuagoak be ba-ziran.

Orduan demokrazi-zaleak Atenas uriaren barruan batu eta pillatu ziran.

Pillatze orrek, zori txarrez, izurri ikaragarria sortu eban eta gizaki asko erail ebazan eta Perikles´egan erritarrak euken on-ustea ortxe amaitu zan.

Alboratu egin eben, epaitu eta diru-izun ikaragarriak ezarri erriaren dirua txarto erabilli ebalakoan.

..

Baiña 30 urtean erriak agintari izan eban Perikles aundia barik bizi izaten ez ekian erriak eta K.a.´ko 429n. urtean barriro aukeratu eben. Ez luzaroko. Bera be izurriak erail eban.

Perikles´ek ez eban iñoz barrerik egiten, bitan bai egin eban negar, baiña izatez oso sentikorra zan.

..

Mileto´ko Aspasia andereagaz maitemindu zan Perikles, andere ederra eta zurra zan eta asko lagundu eutson, batez albo-erriakazko artu-ermonetan.

Andere eder eta ekintzaille onek Perikles´egaz izan ebazan artu-emonak aztergarriak dira.

Aspasia´k luzaro iraun eban inguruko agintarien artean, baiña azkenean Perikles´egazko ezkontzea auzi egin eban.

**OLAZAR´tar Martin´ek**

### ZAINDU NAGIZU

Zaindu nagizu Jauna  
gaitzez beterik dagon  
ezbear onetan,  
zaindu gizon bizia  
urduri aurkitzen dan  
galbide estuetan.

Etsaia, gogor, dabil  
beren almen osoaz  
ondatu gurarik,  
egiz, indartsua da  
txarkerien bidetan  
erdi zoraturik.

Babes billa natortzu  
goizian goizetik  
eguzkiz batean,  
gora egun ederra  
urrezko argiagaz  
zuzentasunean.

**PAULIN**



# 1.- ALEXANDER AUNDIA

Gaztaro elduan, 32 urtekoa zala, il zan Mazedonia´ko Alexander Audia eta orduko mundu ezagunaren zati aundi bat menperatu eban.

II Filipino Mazedonia´ko erregea zan bere aita eta bere ezizailleen artean filosoforik aundiena dogun Aristoteles ikusten dogu. Jakintza aundiko gizona zan Alexander, aitari erregetzan laguntzen asi zanean gaztetzua zala, k.a. 340n. urtean.

Keronea´ko gudaldian berau izan zan gudari zaldidunen buru eta Grezia´ko uriak menperatu ebazan.

K.a. 336n. urtean erail eben bere aita eta gure Alexander, gazte-gaztetan biurtu zan Mazedonia´ko errege. Grazia´tarrak barrirro egin eutsoen guda, baiña laster menperatu ebazan eta Persia´ren aurka guda asi eta irabazi eban, orrelan euren menpetik graziatarrak aske izteko (K.a. 333n. urtean).

Aitak sortua zan falanjea, gudariak euren buruak eskudoen azpian erkatzen ebezala, lagun ona izan eban gudaldietan eta Graniko´n asita, Persiarrak menperatu ebazan, III Dario´ri iges eraginda.

Ejipto´n Amon jainkoaren seme izendatu eben

Asia-barrura sartu zan eta azpiratzen ebazan erriak bigun artzen ebazan eta pozik jarten ziran bere menpean. Dana dala greziatarren izkuntza eta kultura artzera beartzen ebazan.

Laster asi jakozan barruko arerioak berari bizia kendu-naian., baiña guztiak azpiratzen ebazan (K.a.330n. urtean).

Baiña gudari mazedonia´tarrak gudaren gudaz aspertuta egozan eta gainera ezin eben onartu Alexander´ek bere burua jainkotzat agertzea, eurak ondo ekiala gizona baiño ez zala.

Urteen joanak Alexander´en izaerea okerrera bultzatu eban. Jai baten mozkortuta be ikusi eben eta min aundia artu eben Alexander

Aundiak Klito bere laguna erail ebanean, lagun onek aurpegira esaten eutsolako gogorregia zala.

Bere eginkizun oker orreik goibeldu egin eben Alexander bera eta bere burua erail-naian ebillan. Lur geiago eskuratzeko egarria zan bizkotzen eban gauza bakarra. Iru urtetan Afganistan, Belukistan eta Turkestan eskuratu ebazan.

K.a. 326n. urtean India´ra sartu zan baiña gudariak matxinotu egin ziran: Amarka urteak eroiezan gudari eta Alexander geroago ta gogorragoa agertzen jaken, eta greziatarrak izanik, gogorkeriaren aurkakoak be ba-ziran.

Bera trebea zan eta lortzen eban gudariak baretzea.

Itxas-ontzidia sortu eban Indo ibaitik sartzeko eta elefante ta guztiko gudarostea eukan Poros India´ko erregea menperatu eban eta k.a. 324n. urtean Persiarren Itxas-Kolkoraiño eldu zan eta aspertu bagerik jarraitu eban lurraldek eskuratzen.

Gudariak bai aspertu jakozan benetan. Sarritan ikusten eben mozkortuta eta bera Jainkoa zala esaten ebala.

K.a. 323n. urtean Babilonia´ra eldu zan eta il be antxe il zan laster: Batzuk pozoituta il zala diño, beste batzuk “virus” batek erail ebala, Nilo´ko sukarra deritxon eta leuzemia ekarten dauan sukarra.

Bere ondorengoak agintaritza laster galdu eben eta bere gudalburuak jarri ziran agintari bakoitza lurralde baten., baiña berak zabaldu eban greziatarren kulturak iraun eban “islam” sartu arte.

**OLAZAR´tar Martin´ek**

## JAUNA DOGU SALBAMEN

Eskar utsez sorturik lur gañean bizi da erritar gizona, mendi ta itxasoak emon dautsaz Jainkoak au da maitasuna.

Gizona bere baitan arroki dabilkigu gizakerietan, txerren, bat ta bestetik, deika ta zirika arrokerietan

Baiña Aita begira bere seme-alabei maitasun guztia, Jainko maite kutuna guregaz dago beti, laguntzeko pozaz.

## JAUNA GURE ALDE

Jainkozko maitasuna bizien alde dago izadi aurrian, mendiaren ederra onez beterik dago goi esker utsian.

Itxasora begira aurkitzen da gizona aspertu ezinik, ondasunez beterik dago urdin guztia biotza zabalik.

Maitasun iturritik gogotsu sortu dira ondasun guztiak, danetan ederrenak giza bizitzak dira eskarrez beterik.

## 6.- CERVANTES

Gaur ziurtzat dago Alkala de Henares'en jaio zala 1547n. urtean irailaren 29n. egunean.

Bere sendia erdi-maillakoa zan eta Madrid'en eta Sevilla'n igaro eban ume ta gazte-aroa.

Gazte zala Italia'ra joan zan diru-billa. Ez da egia duelo batetik iges egiteko joan zala.

An Acquaviva kardinalaren otsein izan zan eta gero tertzioetara sartu zan gudari. Maitale bat aurkitu eban eta onegaz izan eban Promontorio bere seme bakarra.

1571n. urtean Lepanto'n gudakatu eban. A izan zan "gizaldiak ikusi daben sasoirik aundiena", berak esaten eban lez..Sukarra eukala joan zan eta ezkerreko besoa geldituta geratu jakon eta 1575n. urtean España'ra urten eban Juan de Austria'ren gomendiozko gutunagaz,baiña bidean korsario musulmanak arrapatu eban Rodrigo bere anaiagaz batera eta Argel'era eroan ebezan atxillo.

Korsarioak irakurri ebezan erioazan gomendiozko kartak eta Cervantes gizon aundizat artu eban, karu saldu bear zan gizon lez.

Bost urte egin ebazan an. Sarritan iges egin nai izan eban, baiña alperrik.

Galeretan Konstantinopla'ra bialtzeko egozanean, Lekaide Trinitarioak ordaindu eban beragaitik eta aske geratu zan, baiña arabeen gorrotoa betirako geratu jakon barruan.

Bere errian egoera larrian aurkitu zan : etxean zorrak ugari. Antzeslari izatea otu jakon, baiña erriak Lope de Vega eban gogoko eta onen idazkerea beste bat zan.

Indietara joatea be eskatu eban, baiña ez eban lortu. Eskerrak orreri, bestela ez zan idatziko D.Quijote.

Urrengo urteetan Armada Invencible'ko komisario egin eban, baiña eleiz-ondasunak artu ebazala-ta, ekskomunikatu egin eban. Gero espetxeratu be bai.

1605n. urtean argitaratu eban D.Quijote (lenengo zatia) eta onartua izan zan. Or amaitu ziran bere diru-bearrak.

Azkenengo urteak be gaitxak izan jakozan. Alabea giza-iraulketa baten nastatu jakon, emagaldu biurtu be bai, arrebea il jakon eta Promontorio bere semea ondoan ez eukitea mingarri jakon. Ori agertzen da bere "novelas ejemplares" liburuetan eta D.Quijote'ren bigarren zatian.

1616n. urtean il zan, jorraillaren 23n. egunean Shakespeare il zan egun beratan.

**OLAZAR'tar Martin'ek**

### ZERUKO ATEAK ZABAL

Itxas urdiñak baiño zabalagoak dira zeruko atea, ertz esturik bage ernai daukaz zeruak bere goi egalak.

Zerua deika dago kistar seme zintzoei lurralde guztira, gizadiak, gora, nai zoriontasun eran bizi izatera.

Zorionik onena Aitarenean dago bizitza guztian, ogirik gozoena bere maitasuna zerutar zorian.

### ZERUA ITXARON



Iru bide daukaguz zeruetara adi laguntza opaka, siñismenaren deiak zeruratu nai gaitu biotz taupadaka,

Itxaropen goitarra zerutik deika dago ontasun bidean, gauzarik aundiena zoriona eskeintzen daukagu lurrean.

Onoimen guztietan bitxirik ederrena maitasuna da, maitasun zintzoa izango dau lagun on lurrera begira.

**PAULIN**

# EUSKALDUN BARRIENTZAT



7 EZBARDINTASUNAK

**facil**

7	9							3
8		5		7			9	
		6	2		4		7	
2		3		1	5	6	4	
			3		2			
	4	1	6	8		3		2
	7		8		9	5		
	1			5		2		8
3							6	9

7	9	4	5	6	8	1	2	3
8	2	5	1	7	3	4	9	6
1	3	6	2	9	4	8	7	5
2	8	3	9	1	5	6	4	7
5	6	7	3	4	2	9	8	1
9	4	1	6	8	7	3	5	2
6	7	2	8	3	9	5	1	4
4	1	9	7	6	2	3	8	5
3	5	8	4	2	1	7	9	6

# BBK

**EUSKERAZALEAK**

Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.  
48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 euro)

# txartelak



## **BBK txartelek opariak gordetzen dituzte**

Ordaindu erosketak edozein  
BBK txartelekin eta, hilerro,  
itzelezko opariak irabazi ahal  
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350  
Lege gordailua: BI-1452-85  
FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

**bbk<sup>2</sup>**